

ARNAS INFЕКZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINITZA **Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)**

2025-2026 denboraldia
(2025eko irailaren 29tik 2025ko irailaren 27ra)

41. astea (2025eko urriaren 6tik 12ra)


Gripe-birusaren zirkulazioak goranzko joera du lehen mailako arretan, ez ospitaleetan, ordea. Bronkiolitis diagnostikoek behera egin dute eta COVID-19renak nahikoa egonkor mantentzen dira.

- Lehen mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 384,5 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (353,7/100.000 aurreko astean).
- Lehen mailako arretan, gripe-sindromearen tasak azken asteetako goranzko joera mantentzen du, bronkiolitisarenak behera egin du azken astean eta COVID-19rena aurreko asteko balioetan geratu da.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 56 lagin jagoleen % 71,4 baieztatu da, 10 gripe-birus eta SARS-CoV-2 bat detektatu direlarik, baina ez ABSik. Aipatzekoak dira errinobirusaren 25 detekzioak.
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 11,1 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (11,5/100.000 aurreko astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman, aste honetan, 138 gripe-birus, 104 SARS-CoV-2 eta 3 ABS erregistratu dira.

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 384,5 kasukoa izan da (353,7/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 281,7/100.000 izan da Araban, 412,0/100.000 Bizkaian eta 388,3/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen mailako arreta-sarea. 2025-2026, EAE




Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 4341,8 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 1-4 eta 5-14 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 2059,2 eta 433,8 kasurekin, hurrenez hurren.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



AlAekin lotutako Prozesu Arin Automugatuaren (PAA, *Hotzeria arrunta* eta AlAren sintomaren bat duen *Sukarra*¹) zaintzaren helburua erizaintzako langileek artatzen dituzten prozesu horien bilakaera ikustea da. Aste honetan tasa 100.000 biztanleko 158,8 kasukoa izan da (156,3/100.000 aurreko astean).



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasek gora egin dute aurreko astearekin alderatuta ia ESI guztietan.


AlAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESlaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE

ESI	Tasa 41. astea	Tasa 40. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	305,9	288,3	1,06 (0,97-1,17)
Arabar Errioxako ESI	509,5	509,5	1,00 (1,00-1,00)
Barakaldo-Sestaoko ESI	393,5	370,7	1,06 (0,94-1,20)
Barrualde-Galdakaoko ESI	427,7	429,0	1,00 (0,92-1,08)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	456,5	409,6	1,11 (1,04-1,20)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	400,5	360,9	1,11 (0,99-1,24)
Uribeko ESI	308,6	272,7	1,13 (1,01-1,26)
Bidasoako ESI	321,1	368,6	0,87 (0,74-1,03)
Debararrenako ESI	362,1	363,5	1,00 (0,84-1,18)
Debagoienako ESI	316,3	251,2	1,26 (1,03-1,55)
Donostialdeako ESI	379,4	336,7	1,13 (1,04-1,22)
Goierri-Urola Garaiaiko ESI	422,7	371,9	1,14 (0,99-1,31)
Tolosaldeako ESI	460,2	322,7	1,43 (1,20-1,70)

¹ Informazio gehiagorako kontsultatu [AlAaren jagoletzaren metodologia](#)

LMAn, gripe-sindromearen tasak 10,2 kasu 100.000 biztanleko balioraino egin du gora (7,1/100.000 aurreko astean). Bronkiolitisaren tasa (2 urtetik beherakoetan) behera egin eta 194,8 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (230,9/100.000 aurreko astean), eta COVID-19arena 100.000 biztanleko 9,5 kasutan mantendu da (9,4/100.000 aurreko astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 56 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 71,4 baieztatu dira. 10 gripe-birus eta SARS-CoV-2 bat atzeman dira, baina ez ABSik. 25 errinobirus ere detektatu dira.

AIA intzidentzia-tasa LMA eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2025-2026, EAE



SARS-CoV-2aren positibotasuna jaitsi eta % 1,8an kokatu da (% 10,8 aurreko astean). Gripe-birusaren positibotasunak, ordea, gora egin eta % 17,9koa izan da (% 0,0 aurreko astean). Bestalde, ABSren detekzioz atzeman gabe darrai LMAk. Errinobirusak oso positibotasun altua izan du berriro ere, % 44,6an kokatuz (% 54,1 aurreko astean).


Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2025-2026, EAE

	41. astea		40. astea		2025-2026 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	10	17,9	0	0,0	10	10,8
SARS-CoV-2	1	1,8	4	10,8	5	5,4
ABS	0	0,0	0	0,0	0	0,0
Metaneumobirus	0	0,0	0	0,0	0	0,0
Parainfluenza	4	7,1	2	5,4	6	6,5
Adenobirus	0	0,0	0	0,0	0	0,0
Errinobirus	25	44,6	20	54,1	45	48,4
Urtaroko CoV	2	3,6	1	2,7	3	3,2
Enterobirus	0	0,0	0	0,0	0	0,0

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean


Zaintza sindromikoa

AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik erartortzen direnak. AIAL tasa 11,1 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (11,5/100.000 aurreko astean), 13,4/100.000 gizonetan eta 8,8/100.000 emakumeetan.




Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 100.000 biztanleko 36,3 kasurekin, ondoren 64 urtetik gorakoen eta 1-4 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 31,2 eta 6,7 kasurekin, hurrenez hurren.

**AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**



Gripearen diagnostiko-kodeekin (J09-J11) erregistratutako ospitaleratzeen tasa 0,9koa izan da 100.000 biztanleko (1,7/100.000 aurreko astean), ABSren kodeekin (J12.1, J20.5 y J21.0) ospitaleratutakoena tasa 0,0koa 100.000 biztanleko (0,0/100.000 aurreko astean) eta COVID-19aren kodearekin (U07.1) ospitaleratutakoena 0,6 kasukoa 100.000 biztanleko (1,0/100.000 aurreko astean).

**Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. SARS-CoV-2aren positibotasuna % 7,5era jaitsi da (% 9,7 aurreko astean). Gripe-birusaren positibotasunak ere behera egin du eta % 15,2an kokatuz (% 19,1 aurreko astean), eta ABSrena % 0,7koa izan da (% 0,6 aurreko astean). Errinobirusaren positibotasuna altu mantentzen da % 29,2an (% 28,3 aurreko astean).

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE

	41. astea		40. astea		2025-2026 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	200	7,5	226	9,7	426	8,7
Influenza	145	15,2	178	19,1	323	17,3
ABS	137	0,7	166	0,6	303	0,7

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE




Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 138 gripe-birus, 104 SARS-CoV-2 eta 3 ABS detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 138 gripe-birusetatik, 71 A motakoak izan dira, 30 A(H3) eta 37 A(H1)pdm09. 2025/40 astetik 258 detekzio erregistratu dira, guztiak A motakoak. Azpitipatutako A motako 153 birusetatik, 70 (% 45,8) A(H3) eta 83 (% 54,2) A(H1)pdm09 izan dira.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2025-2026, EAE



Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2025eko urriaren 15ean

Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza